

Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-ekonomiak 1.207 milioi euroko balio erantsia eragin zuen 2017an


Enpleguari dagokionez 18.000 lanpostu sortu zituen, ekonomiak sortutako guztizkoaren % 1,92

Eustatek lehen aldiz egindako ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen kontuko datuen arabera, ingurumen-ekonomiaren **Balio Erantsi Gordina (BEGd)** 1.207 milioi eurokoa izan zen 2017an, hau da, urte horretako BPGd-aren % 1,64. Aurreko urtearekin alderatuz, ingurumenari buruzko BEGd % 8,5 hazi zen, hau da, aldi horretan bertan ekonomiaren guztizkoaren Barne Produktu Gordinaren hazkundea baino bost puntu gehiago.

Ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen kontua ingurumen-kontuen sistemaren barruan dago eta Eurostat-en metodologia jarraituz egiten da. Kontu horien bitartez, ekonomia eta ingurumeneko alderdiak Kontabilitate Nazionaleko sistemaren barruan modu koherentean integratzea ahalbidetzen da. Ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen azpisektorea (ingurumen-ekonomia) ekonomiaren atal honek osatzen du: ingurumenaren gainean presioak murrizteko edo ezabatzeke **baliabide naturalen kudeaketako** jardueratan eta **ingurumena babeseko** helburuekin ondasunak eta zerbitzuak produzitzen dituen ekonomiaren atalak.

Sektore ekonomikoen arabera, eta BEGd-arekin lotuta, erauzteko industrien eta manufakturako industrien ekarpena —ingurumenaren guztizkoaren % 28,6— azpimarratu behar da; ondoren datoz zerbitzuen sektorea —% 26,3—, eta ur-hornidura, saneamendu eta hondakinen kudeaketari lotutako jarduerak —% 23,5—. 2017an, ingurumen-arloan ekarpen txikiena sektore hauek egin zuten: eraikuntza —% 10,2—, energia elektrikoaren, gas, lurrun eta airearen hornidurari lotutakoek —% 8,1— eta, azken lekuan, lehen sektoreak —% 3,4—.

Ingurumeneko Balio Erantsi Gordina, jarduera ekonomikoen arabera (%). 2017



Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Eskuragarri dauden hiru urteetan —2015-2017— izandako bilakaera aztertuz, sektore guztiek ingurumenari buruzko BEGd handitzen badute ere, eraikuntzaren sektorea azpimarratu behar da. Sektore horrek ingurumenari buruzko BEGd-aren guztizkoarekiko pisua 4 puntu baino gehiagotan handitzea lortu du. Horretan, eraikuntza berriek bete behar dituzten energia-ziurtagirien legeriak lagundu du. Guztizkoarekin alderatuta, euren ehunekoa ere hobetu dute Lehen sektoreak —ehuneko +1,7 puntu— eta ur-hornidura, saneamendu-jarduera, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioaren sektoreak —+ 0,5 puntu—.

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektorearen Balio Erantsi Gordina, jarduera-taldearen arabera (mila euro). 2015-2017

	2015 (p)	2016 (p)	2017 (p)	Ingurumeneko BEGaren gainerako %			Urteko aldakuntza tasa (%)	
				2015	2016	2017	2016/2015	2017/2016
Ingurumeneko BEG, guztira	981.339	1.112.715	1.206.924	100,0	100,0	100,0	13,4	8,5
A: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	26.850	36.379	40.557	2,7	3,3	3,4	35,5	11,5
B+C: Ateratze eta manufaktura-industriak	305.870	330.134	345.089	31,2	29,7	28,6	7,9	4,5
D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren hornidura	82.885	95.226	97.217	8,4	8,6	8,1	14,9	2,1
E: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	225.353	251.022	283.348	23,0	22,6	23,5	11,4	12,9
F: Eraikuntza	59.167	102.045	123.080	6,0	9,2	10,2	72,5	20,6
G-U: Zerbitzu-sektorea	281.214	297.909	317.633	28,7	26,8	26,3	5,9	6,6
B.P.G. m/p	68.496.577	71.239.291	73.697.375				4,0	3,5

(P) behin-behineko datuak

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Ingurumenari lotutako jarduerak sortutako lanaldi osoko postu baliokide gisa neurtutako **enplegua** 2017an erregistratutako guztizko enpleguaren % 1,92 izan zen.

Ingurumen-enplegua sektore ekonomikoen arabera aztertzen badugu, lehendabiziko lekuan Zerbitzuen sektorea dago —ingurumen-enpleguaren guztizkoaren % 32,3 da—, ondoren, erauzteko industria eta manufaktura-industria —% 29,7— eta ur-hornidura, saneamendu eta hondakinen kudeaketari lotutako jarduerak —% 22,8— azaltzen dira. Era berean, ingurumenari lotutako enpleguaren arloan ekarpen txikiak sektore hauek egin zituzten: eraikuntzak —% 11,4—, lehen sektoreak —% 3,5— eta energia elektriko, gas, lurrun eta airearen hornidurako sektoreak —% 0,3—.

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektoreko lanaldi osoko enplegu baliokidea (LOE), jarduera-taldearen arabera. 2015-2017

	2015 (p)	2016 (p)	2017 (p)	Ingurumeneko enpleguaren gainerako %			Urteko aldakuntza tasa (%)	
				2015	2016	2017	2016/2015	2017/2016
Lanaldi osoko enplegu baliokidea	15.537	17.005	18.048	100,0	100,0	100,0	9,4	6,1
A: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	437	479	633	2,8	2,8	3,5	9,6	32,2
B+C: Ateratze eta manufaktura-industriak	4.877	5.146	5.369	31,4	30,3	29,7	5,5	4,3
D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren hornidura	52	52	54	0,3	0,3	0,3	0,0	3,8
E: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	3.676	3.962	4.111	23,7	23,3	22,8	7,8	3,8
F: Eraikuntza	944	1.633	2.054	6,1	9,6	11,4	73,0	25,8
G-U: Zerbitzu-sektorea	5.551	5.733	5.827	35,7	33,7	32,3	3,3	1,6
Ekonomia osoaren LOE	899.438	919.453	938.892				3,3	1,6

(P) behin-behineko datuak

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Urtetik urterako datuen arabera, 2017an ingurumen-enpleguaren bilakaeran sektore hauek azpimarra daitezke: lehen sektorea eta eraikuntza-sektorea, hurrenez hurren % 32,2 eta % 25,8ko enplegu-hazkuntzarekin.

Ingurumen-azpisektorea ekonomiaren guztizkoarekin erlazionatzen duten **adierazle nagusiak** kontuan hartuz, ingurumenari buruzko BEGd 2017ko BPGd-aren % 1,64 zen, aurreko urtean baino 8 ehunen gainetik; eta lanaldi osoko enplegua guztizko enpleguaren % 1,92 —2016an baino 7 ehunen gainetik—. 2015-2017 aldia aztertzen badugu, goranzko bilakaera iraunkorra eman dela ikusten dugu.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-jarduerak, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia osoarekin alderatuz, % 1,92 dira; Espainiakoak, berriz, % 1,73, hango ekonomia osoarekin alderatuz. Aitzitik, BPGd-ari dagokionez, Espainiako balioa —% 2,15— Euskal Autonomia Erkidegokoaren —% 1,64— gainetik dago.

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektorearen adierazleak, jarduera-taldearen arabera (%). 2015-2017


	Ingurumeneko BEG BPG % kontuan hartuta			Ingurumeneko enplegua (LOE) guztizko enpleguaren (LOE) aldea		
	2015 (p)	2016 (p)	2017 (p)	2015 (p)	2016 (p)	2017 (p)
Ingurumenekoa, guztira	1,43	1,56	1,64	1,73	1,85	1,92
A: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	0,04	0,05	0,06	0,05	0,05	0,07
B+C: Ateratze eta manufaktura-industriak	0,45	0,46	0,47	0,54	0,56	0,57
D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren hornidura	0,12	0,13	0,13	0,01	0,01	0,01
E: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	0,33	0,35	0,38	0,41	0,43	0,44
F: Eraikuntza	0,09	0,14	0,17	0,11	0,18	0,22
G-U: Zerbitzu-sektorea	0,41	0,42	0,43	0,62	0,62	0,62

(P) behin-behineko datuak

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Europako araudia jarraituz, ingurumen-helburuaren arabera, **bi esparru nagusi** bereizten dira: **ingurumena babesteko jarduerak** eta **baliabideak kudeatzeko jarduerak**; biak bi sailkapen elkar-ukatzaitan bildu dira. Alde batetik, ingurumena babesteko jarduerak Ingurumena Babesteko Jardueren Sailkapenean (**IBJS**) deskribatzen dira; eta, bestetik, baliabideak kudeatzeko ingurumen-babeseko jarduerak Baliabideen Kudeaketa Jardueren Sailkapenean (**BKJS**).

Ingurumeneko Balio Erantsi Gordina, ingurumen-eremuen arabera (%). 2017



Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

2017an sortu zen ingurumenari buruzko BEGd-aren guztizkoaren gainean pisu handiena zuen esparrua hondakinen kudeaketarena izan zen, guztizkoaren % 25,2ko ekarpena eginez. Energia-iturri berriztagarrien bidezko energia-produkzioa ere nabarmentzen da % 16rekin. Beste BKJS batzuen kategoriak (bertan, besteak beste, uraren, baso-baliabideen eta flora eta fauna basatien kudeaketa adibidez biltzen ditu) % 23,9ko ekarpena egiten du; eta beste IBJS batzuen barruan sartutako jarduerak (bertan, besteak beste, zarata murrizteko, biodibertsitatea babesteko eta erradiazioaren aurka joateko, eta ingurumeneko I+G, adibidez, biltzen ditu), berriz, % 22,7ko ekarpena egiten du.

BPGd-aren arabera, ingurumena babesteko jarduerak (IBJS) 2017ko BPGd-ari % 0,91ko ekarpena egiten diote, baliabideen kudeaketa-jarduerak egiten diotena baino % 0,73 gehiago.

Enpleguari dagokionez, guztizko datuekin alderatuta, ingurumena babesteari lotutako jarduerak dute, kasu honetan ere, pisu handiena, % 1,20 alegia; baliabideen kudeaketak, berriz, % 0,72ko pisua dute. Zehazki, guztizko enplegua kontuan hartuz, enplegu gehien ingurumen-esparru hauek eragin zuten: hondakinen kudeaketak (0,55 puntu) eta energia-produkzioaren ingurumen-esparruak (0,15 puntu), energia-iturri berriztagarrien bidez.

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektorearen adierazleak, ingurumen-eremuaren arabera (%). 2015-2017

	Ingurumeneko BEG BPG % kontuan hartuta			Ingurumeneko enplegua (LOE) gustizko enpleguaren (LOE) aldea		
	2015 (p)	2016 (p)	2017 (p)	2015 (p)	2016 (p)	2017 (p)
(IBJS + BKJS) GUZTIRA	1,43	1,56	1,64	1,73	1,85	1,92
IBJS GUZTIRA	0,78	0,85	0,91	1,04	1,14	1,20
IBJS 1 - Airearen eta klimaren babesa	0,02	0,02	0,02	0,03	0,03	0,03
IBJS 2 - Hondakin-uren kudeaketa	0,09	0,09	0,09	0,07	0,07	0,07
IBJS 3 - Hondakinen kudeaketa	0,39	0,40	0,41	0,53	0,56	0,55
IBJS 4 - Lurzoruak, lurpeko urak eta lurrazaleko urak babestea eta deskontaminatzea	0,02	0,02	0,02	0,04	0,04	0,04
BESTE IBJS BATZUK	0,26	0,32	0,37	0,37	0,44	0,51
BKJS GUZTIRA	0,65	0,71	0,73	0,69	0,71	0,72
BKJS 13A - Energia iturri berriztagarrien bidez ekoiztea	0,25	0,26	0,26	0,14	0,14	0,15
BKJS 13B - Energia/beroa kudeatzea eta aurrezte	0,07	0,07	0,07	0,08	0,08	0,08
BESTE BKJS BATZUK	0,34	0,37	0,39	0,47	0,49	0,50

(P) behin-behineko datuak

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62